

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 28an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, aho batez:

“Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik, eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan “planto” egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduari haritik, bi mugimenduek bat egin dute, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira. Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren iraunkortasunari lehentasuna emanaz.

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 28 de enero de 2020, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

“Hace seis años, numerosos sindicatos y agentes sociales constituyeron una carta que recoge los derechos sociales de la ciudadanía, mediante un proceso participativo. Desde entonces, han organizado diversas iniciativas a favor de estos derechos.

Por otro lado, el movimiento de pensionistas de Hego Euskal Herria lleva dos años movilizándose semanalmente a favor de unas pensiones dignas. Junto a estas movilizaciones, y superando el ámbito de las pensiones, han puesto de manifiesto la necesidad de “plantarse” de una manera más amplia, con la intención de ir más allá de sus propias reivindicaciones.

Ahora, en el marco de este planteamiento, ambos movimientos se han unido para hacer frente a la lucha por unas condiciones laborales, unas pensiones y una vida dignas.

Un triple convencimiento ha sido la causa de esta unión: por un lado, el tema de las pensiones, actuales y futuras, es cosa de todas y de todos; por otro, la lucha por unas condiciones laborales dignas resulta imprescindible, y, por último, es necesario que se garanticen los derechos sociales. En definitiva, tenemos que construir un modelo socio-productivo diferente, que ponga la vida en el centro y que prime el cuidado y la sostenibilidad del planeta.



Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendartearen beharren araberrako antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...) eta abar.

Nos adherimos a los principales ejes que han establecido los movimientos citados: redistribución de la riqueza, liderazgo del sector público, universalidad de los derechos, normalización del euskera, equilibrio territorial, organización en función de las necesidades de la sociedad (sector primario, infraestructuras, sector de mercancías y transporte...), etc.

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen aldarrikapen taularekin bat eginez, honako ERAKUNDE ADIERAZPEN hau aurkezten du EH Bildu udal taldeak.

Por ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL, de acuerdo con la tabla de reivindicaciones que la Carta de los Derechos Sociales de Euskal Herria ha acordado con el movimiento de las personas pensionistas.

ERAKUNDE ADIERAZPENA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Donostiako Udalbatzak urtarrilaren 30eko greban parte hartu nahi duten langileei greba eskubidea berma dakiela eskatzen du".
=====

El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita que se garantice el derecho a la huelga a los trabajadores y trabajadoras que deseen participar en la huelga del 30 de enero".
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagirri hau egin dut, Donostian, 2020ko otsailaren 12an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 12 de febrero de 2020

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE: